

ZAPATENEOREN XV.URTEURRENA

Del 16 al 31 de OCTUBRE.2017

URRIAREN 16an, 19:00etan.- «La revolución en la práctica» liburuaren aurkezpena, Rosa Negra editore-kolektiboaren eskutik.

Hiru saiakerak osatzen dute «La Revolución en la práctica» liburua: Errico Malatestak izen berarekin plazaratutakoa, Pedro Esteveren «Réplica» eta «El problema político de la revolución», Gaston Leval egilearena. Komunismo anarkikoa ardatz gisa hartuta, hainbat gai jorratzen ditu, besteak beste, matxinada baten aitzindari izateko prest leudekeen talde anarkisten sorkuntza, balizko aliatuekin zer-nolako harremanak izan, iraultza sozial hipotetiko baten ondorengo antolakuntza eta diruaren abolizioa.

Urriaren 18an, 19.00tan “Manifesto por una civilización democrática” Abdullah Öcalanen liburu aurkezpena, Sivan Zerdesti, KNK (Congreso Nacional del Kurdistan)-ren kidea eta itzultzailearen eskutik. Agir Kolektiboak antolatuta.

Liburuak bost liburuxka ditu, lehenengo biak gaztelerara itzulita daudelarik: “Orígenes de la civilización” eta “civilización capitalista”.

Urriaren 19an, 19.00tan: “10 ingobernables. Historias de transgresión y rebeldía” liburuaren aurkezpena. June Fernández, idazle eta kazetaria (Píkara magazine).

“Liluratu zaidan jendearen historietatik abiatuz, gauza askotaz hitz egiten dut: Dibertsitateak goratu; agindu sozial, estetiko eta sexualak kritikatu; testu liburuetan agertzen ez diren emakume heroien memoria berreskuratu; barrea, amorrazioa, bitxikeria, kontraesana, nahi dugun eran bizitzeko eskubidea aldarrikatzen ditut.”

Urriaren 20an, 19:00etan.- «Éstos discos tienen una historia». Solasaldia eta entzunaldia, gizon zahar baten eskutik

Punk eta hardcore diskoei buruzko kalakalditxoa. *Tramankulu* horien diseinuaz eta askotariko gai, ideia nahiz estiloekin duten erlazioaz arituko zaigu hizlaria.

Urriaren 23an, 19:00etan.- «Situación antirrepresiva en Catalalunya al entorno libertario». Solasaldia eta proiektzioa.

Azken zartako errepresiboak zerrendatuko dira: *Columna*, *Pandora* eta *Piñata* operazioak. Apirilaren 13an atxilotutakoek «**El Govern de la Por**» dokumentala erabiliko dute horren guztiaren berri emateko.

Urriaren 24an 19,00etan : “Anarquismo en Rio de la Plata y Guerra Civil española: una relación solidaria”. Hizlaria: **Agustín Comotto**.

Comottok “155 Simón Radowitzky” komikiaren egilea dugu, eta XX. Mendeko egoeraz eta anarkisten arteko harreman solidarioaz arituko da.

Urriaren 26an, 19:00etan.- Mahaingurua: liburutegi eta liburudenda alternatiboak Euskal Herrian, Katakarak (Iruñea), DDT (Bilbo), Kaxilda (Donostia) eta Zapateneo (Gasteiz) gunetako kideen eskutik.

Azken urteotan, alternatibo izenondoa jaso ohi duten liburutegi, liburudenda edota distri formako zenbait proiektu ernetzen joan dira Euskal Herrietan, denak idiosinkrazia bereizi bezain berezkoarekin. Abaroa dute bertan askotariko kolektiboek nahiz editorialek plazaratzen dituzten liburu, panfleto eta abarrek.

URRIAREN 28an, goizeko 11tatik aurrera eta egun osoan.- Serigrafia tailerra.

Heldu nahiz umeentzako DIY tailerra, Laudioko SERIFLYko kideen eskutik. Ekarzank kamiseta!

Eta, gainera...

ZapAteneo topaketa zaplaguna eta zapbazkideekin: bertsolariak, luntxa, poesia errezitaldia... Animatzen zareten guztiontzat!!!

Urriaren 31an, 20:30etan.- Igor Arzuaga zuzenean.

Exkixu taldeko kide ohia dugu, eta bakarkako bideari ekin aurretik, Mikel Urdangarinen lehenengo dikosetan ere parte hartu zuen. Musikak eta poesiak garrantzi bera dute Igorren lan barrenkoi, intimistetan.

*** Lasai asko ekar dezakezue etxetik mokadutxoren bat solasaldien egunetan guztion artean jateko ;)**

*** Egitarauan agertzen den guztia Zapateneon izango da (Zapatari kaleko 93. zenbakiko etxabea, Gasteiz), <http://zapateneo.net>**

*** urriak 16 egunetik 31 egunera pegatina politikoen erakusketa izango dugu zapateneon.**

*** urriaren 23tik 29ra Txapak egiteko tailerra; zatoz zure txapa egitera!**